

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Agenda 21eko Foroa

2009ko azaroaren 5ean egindako tailerraren akta



Gaiak:

- Berriak
- Hitzaldia: Ura eta haren kudeaketa

Osteguna, 2009ko azaroaren 5ean

Legazpin, 18:30etik 20:00etara

● Uraren kudeaketari buruzko tailerra

Horrela labur dezakegu gure gaurko topaketa. Izan ere, hilero elkartzeko erabiltzen dugun ordu eta erdi ia osoa **Victor Peñas jaunak** "Ura eta haren kudeaketa" gaiari buruz eskaini digun hitzaldiari dedikatu diogu. Victor Peñas jauna Uraren Euskal Agentziako Erakunde-harremanetarako Zuzendaritzako teknikaria da (<http://www.uragentzia.euskadi.net/u81-0002/es/>).

Joan den urriaren 1eko tailerrean parte hartu zuten kideek "gai horri buruz gehiago jakin" nahi zutela adierazi ziguten eta eskari hari erantzun nahi izan diogu hitzaldi honekin. Lortu al dugu? Hala espero dugu!



● Parte hartzaileak

Eguraldi benetan txarra egin duen arren, gaur 28 pertsona bildu gara; horien artean aurpegi berriak ikusi ditugu eta hilero konpartitzen dugun gune honetan "finkoak" bilakatzea espero dugu. Lorpen handia izango litzateke hori!

Eskerrik asko gaur bereziki zuei!

Jose Ignacio Gil ♦ Joxean Auzmendi (Ingurugela, Brinkola-Legazpi) ♦ Miriam Orozko ♦ Jose Angel Uranga ♦ Montse Vallejo ♦ Ana Moreno ♦ Maite Lazaro ♦ Jose Ramon Hernandez ♦ Floren Gutierrez ♦ Jone Azpeitia ♦ Juan Carlos Alzelai (Brinkolako Harri Urdin Auzo Elkarte) ♦ Junkal Fernandez ♦ Koro Zabaleta (Olazabal ikastetxea) ♦ Antxine Soraluze (Olazabal ikastetxea) ♦ Sagrario Diaz ♦ Iñaki Mauleon (Domingo Agirre eskola) ♦ Estefanía Agirre ♦ Josean Zeberio (Hegialdeko auzo elkarte) ♦ Eneko Aseginolaza ♦ Arantxa Segurola (Haztegi ikastola) ♦ Iñaki Berrokoso ♦ Juan José Rodríguez ♦ Jesus Mari Otermin ♦ Víctor Peñas (URA, Uraren Euskal Agentzia) ♦ Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

● **Hasteko, "berriak" eta oparia!**

Victorrek eskaini digun hitzaldian buru-belarri sartu aurretik, Inmak hainbat gauzen berri eman digu. Hona hemen laburtuta:

- **"PISUZKO ARRAZOIAK" Kanpaina: Legazpin, autorik eta hondakinik gabe, ingurumenaren alde" eta erosketetarako 10 orgen zozketa!**

Azaroaren azkeneko astean, Udalaren eta Legazpiko Ilinti dendarien elkartearen elkar lanaren ondorioz, erosketetarako orgen erabilera sustatzeko kanpaina bat burutuko da. Kanpainaren helburua, besteren artean, honako hauxe izango da: plastikozko poltsen erabilera murriztea eta Legazpin egin beharreko joan-etorriak oinez (eta ez autoz) egin daitezela bultzatzea.

Burutuko diren ekintza zehatzen artean honakoak azpimarratuko ditugu:

- Erosketetarako 49 orga zozketatuko dira (Ilinti elkartea osatzen duen denda bakoitzeko orga bat); horretarako, denda bakoitzean erosketako txartelak jasoko dira, bezeroaren izenarekin eta telefonoarekin.
- Subentzionatutako erosketetarako orgak salduko dira. Hauxe da orga bat eskuratzeko egin behar dena: 10 euro ordaindu + plastikozko 10 poltsa ekarri + inkesta bat bete.

Eta gaur, motorrak berotzen hasteko eta Foroaren lana eskertzeko asmoarekin, kanpainarekin bat egin nahi izan dugu eta **gaurko tailerlean parte hartu dutenen artean erosketetarako 10 orga zozketatuko ditugu zuzenean.**

Nortzuk izan dira opari ederra jaso dutenak? Hauek izan dira zorionekoak...

Jose Ignacio Gil ♦ Miriam Orozko ♦ Ana Moreno ♦ Maite Lazaro ♦ Junkal Fernandez ♦ Estefania Agirre ♦ Josean Zeberio ♦ Eneko Aseginolaza ♦ Arantxa Segurola ♦ Iñaki Berrokoso.



Zorionak, eta orain Legazpin egingo dituzuen erosketetan erabiltzera!¹

¹ Saridunei azaroaren 28an, larunbatean, eguerdian plazan egingo den ekitaldian emango zaizkie orgak.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- **Udaletxeko obra-lantaldeak Ekoscan ziurtagiria berritu du**

Joan den astean udaletxeko obra-lantaldeak urteko ikuskaritza gainditu behar izan du Ekoscan ziurtagiria berritzeko; ikuskaritza hori arazorik gabe gainditu zuen obra-lantaldeak, aurtengorako ezarritako bi helburuak aise bete dituelako: eraikinetako argiterian energia-efizientzia hobetzea eta igeltserotza eta lorezaintza ataletan egin beharreko erosketen kudeaketa (ingurumenaren ikuspuntutik) hobetzea. Horretarako, obra-lantaldeak Haizea Ikerketa enpresaren laguntza teknikoa jaso du eta, bereziki, Junkal Fernandez langilea izan da laguntza hori eskaini duena.

Datorren udazkenerako (2010) helburu berriak ezarri dira ingurumenaren ikuspegia ez galtzeko eta ildo horretatik lan egiten jarraitzeko. Zehatz-mehatz hauek izango dira helburu berriak: herri-argiteriaren efizientzia hobetzea eta elektrizitateko materialaren erosketen kudeaketa hobetzea.

- **Ingurumenaren ikuspuntutik produktu hoberenei eta/edo ekologikoei buruzko ikastaroa Legazpiko dendariekin**

Urriaren 19tik 23ra, udalerriko 13 dendarik ingurumenaren ikuspuntutik produktu hoberenei eta/edo ekologikoei buruzko ikastaro bat egin dute. Ikastaroa honako erakundeen artean antolatuta da: Legazpiko Udala, Ilinti merkatarien elkarteak, Ihobe eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo saila. 2 orduko 5 saio egin dira eta hainbat gai sakontzeko balio zigun: merkatu berdea, ingurumenaren ikuspuntutik produktu hoberenak eta/edo ekologikoak eta haien abantailak, saltzeko argudioak eta egungo eskaintzan sartzeko aukerak.



Hauek dira ekimen aitzindari honetan parte hartu duten dendak:

Algar ♦ Calzados Urcelay ♦ Lencería Jokine ♦ Koro Paternain ♦
Lanbroa ♦ Creativos GH ♦ Apatxo liburudenda ♦ Frutería Mari
Carmen ♦ Zabadis banaketak ♦ Alkain ♦ Aierdi ♦ Pinturas
Alfredo ♦ Sustrai

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- **Irteera didaktikoa azaroaren 7an, larunbata, Burdinola elkarteak antolatuta**

Burdinola elkartearen izenean Floren Gutierrez kideak hartu du hitza eta datorren larunbatean, azaroak 7, ibilaldi didaktikoa antolatu dela esan du: Buskabasotik Zatuira joango dira. Irteera goizeko 9:00etan izango da Latxartegi parketik. Floren izango da gidari eta ingurune horretan aurkituko dugun faunaren eta floraren aberastasuna adieraziko digu. Guztiak zaudete gonbidatuta!



- **Liburua banatzea**

Eta gaurko gauza gutxi balitz, Udalak bertaratu diren guztiei Jose Mari Urcelay herritarrak idatzi duen "Historia del abastecimiento y tratamiento del agua potable en Legazpi" liburua banatu die. Aproposa gaurko egunerako!

- **Victor Peñas hizlariak urari buruz eskaini digun hitzalditik ateratako mezu garrantzitsuenak**

"Uraren kultura berriaren erronka: ura eta ibaiak ulertzeko beste era bat". Izenburu hori jarri dio Victor Peñas jaunak gaur eskaini digun hitzaldiari.

Edukiez eta azalpenez beteriko hitzaldia izan da eta ura eta bere kudeaketa hobeto ulertzeko balio izan digu; horrezaz gain, pisuzko hainbat arrazoi eman dizkigu gaiari buruz han eta hemen entzuten edo irakurtzen duguna alderatzeko edo ikasitakoa ahanzteko (Victorrek dioen bezala). Horri esker hobeto ezagutuko dugu gaia eta Legazpin uraren kudeaketari buruz hitz egingo denean aukera izango dugu parte hartzeko eta gure iritzia emateko.

Segidan, Victorrek eskaini dizkigun mezu garrantzitsuenak laburtzen saiatu gara baina badakigu jasotako bestelako xehetasunak ezinezkoa dela paperean jasotzea eta horiek zuzenean Victorren hitzaldia entzun dugunok gordeko ditugu gure baitan. Eskerrik asko Victor!

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- **Mundu mailan, uraren gaiari dagokionez bi arazo kontrajarriak daude:**

Batetik, "ura biziaren iturri da eta, hala ere, planetan dauden baliabide natural berriztagarrietatik ahulena, degradatuena eta mehatxatuena da". Eta bestetik, "egungo gizartearen ingurumen-eskakizunak eta exijentziak (batik bat garatutako herrialdeetan) goraka doaz, hala nola Uraren Europako Zuzentarau Markoa".

- **Uraren gaineko pertzepzioa aldatu egin da historian zehar eta desberdina da pertsona bakoitzerako. Horrek eragina du uraren kudeaketaren bilakaeran; gaur egun, kudeaketa horrek eredu ekosistemikoa eta parte-hartzailea bilatzen du.**

Ikuspegi hidraulikotik, ura erabili eta aprobetxatu behar den baliabidea da. Maila hidrologikotik, ura elementu dinamikoa da. Maila ekosistemikoan (aurreko biekiko jauzi kualitatibo garrantzitsua da), ura bizia mantentzeko da. Eta azkenik, maila holistikoaren pertzepzioa dago eta horren arabera ibaiak paisaiaren arima dira.

Gaur egun, herritarren %80aren ur-pertzepzioa oinarritzko mailan eta maila hidraulikoan kokatzen da, gure ibilbide historikoak hori erakutsi digulako. Eta horrek eragina du azken hamarkadetan ura kudeatzeko politika desberdinetan eta eruedetan (hala ere, aldaketa txikiak sumatzen dira dagoeneko).

Zentzu horretan, gurean erabat errotuta dagoen ura kudeatzeko eredu estrukturalismoa eta teknokratikoa da; beste hitzetan esanda, uraren politika obretako politika izan da. Baina horrelako konponbideak (egun betetzen ez diren urtegi handiak,...) ur-gaietan egungo beharrei eta erronkei erantzuteko konponbide onak ez direla izan ikusi da. Horregatik, Uraren Europako Zuzentarau Markoak ezarritako ildotik, eredu berrirantz goaz: ura kudeatzeko eredu ekosistemikoa eta parte-hartzailea.

- **Egungo erronka: uraren kultura berrirantz eta baliabidearen kudeaketa iraunkorragorantz joatea**

Kudeatzeko eredu eta naturako ondare diren ibaiak ulertzeko modua aldatu behar dugu. Eta horretarako, eredu berria ondokoetan oinarrituko da:

- Kontsumoan aurrezte eta gardentasuna (eskaintzaren kudeaketatik eskariaren kudeaketara pasatu behar dugu).
- Eraginkortasuna kudeaketan.
- Ingurune hidrikoa zaindu (ingurune hidrikoa ondo zaintzen badugu bakarrik izango dugulako ur-hornidura bermatuta).

Eta horretan heziketa da giltzarria: pentsamoldeak eta sentsibilitateak aldatu behar ditugu.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- Horretarako, araudien eta legeriaren ikuspegitik, Uraren Europako Zuzentarau Markoa da instrumenturik garrantzitsuena.

Zuzentarau hori 2003an txertatu zen estatuko legerian eta 2006ko uztailaren 23ko Uraren Euskal Legean jasota dago. Zuzentaruaren helburua hauxe da: ingurune hidrologikoaren egoera ekologiko ona zaintzea.

Horregatik, uraren gaineko politika egiterakoan ingurune hidrikoa zaintzea da garrantzitsuena (beste hitzetan, ezin dugu "okerrera egin eta hobetu beharra dago"), ibai horien kalitatea berreskuratzeko lanak ahaztu gabe. Horrek gure "txipa", gure pentsamoldea, aldatzea eskatzen du eta aldaketa hori maila guztietan eman behar da (Administratziotik hasi eta herritarreraino iritsiz).

- Uraren gainean zehaztu beharreko hainbat topiko².

- **Ura baliabide urria da.** Ikuspegi fisiko batetik hori ez da egia; baina bai da eraikitako edo eragindako urritasun bat (hau da, ura erabiltzeko moduan egon daiteke baina ez da baliagarria kutsatuta dagoelako edo azpi-egiturak ez daudelako edo)
- **Munduan, uraren krisiak urritasun-arazoaren ondorio dira.** Edo benetan dagoena ez al da uraren kudeaketaren krisia?
- **Jendea egarriz hiltzen da.** Ez da egia, sarritan jendea kutsatutako ura edan duelako hiltzen da.

- Bukatzeko, hausnarketarako esaldiak bota dizkigu Victorrek.

- "Planetan bizi diren gainerako guztiekin konpartitu behar dugu ura; ez dugu urarengatik lehiatu behar".
- "Lurraldearen errealitate fisikora egokitzen ez garen bitartean, ura beti izango da urria".
- **Uraren kudeaketa iraunkorra guztion eginbeharra da!**

² Horiek eta beste asko "¡Destejiendo tópicos del agua!" liburuan jasoko dira. Víctor Peñasek idatzi du liburua eta aurtengo urte bukatu aurretik argitaratzea espero du.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

● **Eta azkenik, agur esan behar dugu aurtengo azken hitzordura arte!**

Uraren eta haren kudeaketarekin zerikusia duten mezuen eta topikoen artean eta gaiari buruz orduak eta orduak hitz egiten eta eztabaidatzen eman ditzakegula susmoarekin, bukatu egin behar dugu gaurko tailerra.

Datorren abenduaren 10ean ikusiko dugu berriro elkar eta 2009ko azken foroa egingo dugu. Egun horretan urteko balantzea egingo dugu eta berehala hemen izango den urte berrirako proposamen berriak ezarriko ditugu.

Bitartean, udazkenaz gozatu eta ... **ongi bizi!!!**

Eskerrik asko guztioi!